

EDMODO

Irakasle lanetan aritzeko, irakasle gisa sartu beharko dugu, kontu berri bat erabili beharko dugu. Berrero ere 0tik hasiko gara izena ematen, eta oraingoan bai, gure helbide elektronikoa jarriko dugu (ezinbestekoa da).



Eman dugun helbide elektronikoko hori hemendik aurrera baliagarria izango da ikastaro berriak sortzeko edo beste irakasle batzuekin harremanetan jartzeko. Baztertua ez duzuen kontu bat erabili, baina zuen korreoa iragazkia sortu jasoko dituzuen mezu zaparrada automatikoki karpeta batean gordetzeko.

Itxura

Hau da ikusten dudana irakasle lanetan ari naizenean:



Ikusten duzuen moduan, hasierako itxura nahiko antzeko da denontzat, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat (eta gurasoentzat).

Eskuineko zutabea, ematen ditudan ikastaroen zerrendaren gainean “Unirse o Crear” azaltzen zait. Bertan, ikastaro berri bat sor dezaket. Beste zutabeetan dauden baliabideak aldatuko dira segun zutabe honetan zer aukeratzten dudana: “azkeneko mezuak” edo “talde zehatz bateko lana”.

Erdiko zutabea, Facebook edo Tuenti sareetan azaltzen den bezala, mezuak azaltzen zaizkigu: taldeari zuzendutako mezuak eta mezu pertsonalak.

Mezu bakoitzaren ezkerrean nork bidali duen azalduko zaigu. Argazkiren bat jarri baduzue, lagungarriagoa izango da denontzat, gehiago irakurri gabe ikusiko dugu mezua nork bidali duen. Bestalde, seguru konturatu zaretela nire mezuak bi eratakoak direla:



Nire argazkia aurrean azaltzen den horietan, nik idatzitakoak dira. RSS jarrioren ikurra azaltzen denean, ordea, ez dira nik idatzitakoak, blog batetik hartuak baizik.

Hau da, sareetan idaztea ez da oso eroso, informazioa labur eman behar dugu eta ikasleei mezuak azalduko zaizkie denak batera, nahastuta. Gure apunteak ordenean izateko eta informazioa hobeto zabaltzeko blog bat sortuko dugu, bertan gure azalpenak idatziko ditugu. Ondoren, Edmodon blog horretara harpidetza egingo dugu eta blogean zerbait argitaratzen dugun guztietan, automatikoki, gure taldeko sarera etorriko da, horrela, blogean informazioa antolatuta eta irekia izango dugu eta hemen, ordea, ariketarekin batekin edo ikasleek ingurune babestuan eta itxian erantzuteko aukera izango dute.

Ikasleei ez bezala, mezu bat idazten dugunean, goian, beste aukera batzuk azalduko zaizkigu.



“Asignación” edo “Prueba” aukeratzen badugu, ikasleen “notas” atalera joango da, eta, gainera, data jarri behar dugunez, ikasleek zein lan bete behar duten eta noizko ikusgai izango dute egutegian ere.

Eskuineko zutabean, pendiente ditugun lanak azalduko dira:



Azkeneko aldiz konektatu ginenetik zer gertatu den ikusiko dugu. Hemen ikusiko ditugu errebisatzeko ditugun kontuak eta horietara joateko bide azkarra.





Horren azpian taldearen ezaugarriak azalduko zaizkit:




Kode hori erabiliz, ikasleak gure taldean sartuko dira. Edmodo erabiltzen duten lehenengo aldia bada, norberak bere erabiltzaile izena aukeratuko du eta pasahitza, bestela “unirse” botoia azalduko zaio kodea sartzeko.

Multzo horretan “Suscribir grupo a una fuente” ere aurkituko dugu. Hemen gure blogean idatzi duguna Edmodora ekartzeko bidea aurkituko dugu. Jario-irakurleetan ematen genituen pausoak jarraituko ditugu:



Hurrengo multzoan, behean, ikasleen zerrenda aurkituko dugu:




Kudeatzeko sakatuz gero, ikasleak zerrendatuta azalduko zaizkigu eta fitxaren batean sakatuz gero, ikasle horien datuak ikusiko ditugu, pasahitza aldatzeko aukera eta gurasoei ikastaroan egindakoa ikusi ahal izateko eman beharreko kodea. Horrez gain, ikasle hori ikastaro horretatik ken dezakegu edo pasahitza aldatu (ahaztu bazaio).



Ikastaroa martxan

Gure aurrez aurreko saioetan gertatzen den bezala, gure irakasteko moduaren arabera zeregin batzuk edo besteak erabiliko ditugu. Hasteko, ongi-etorri mezuak eta ikastaroaren nondik norakoak idatzi beharko ditugu.


Mezuak idazteko karratuan, azalpenezko mezuak edo zereginak jar ditzakegu. “Asignación” edo “prueba” erabiltzen baditugu, “notas” eta “calendario” ataletan ere azalduko dira.



Hau da, adibidez, “asignación” aukeratu ondoren, mezuarekin batera ikusten duguna.




Behin ikastaroa martxan dagoela, erdiko zutabeen begiratzan dut zeintzuk diren jasotako azken mezuak eta erantzuten ditut. Ondoren “Notas” (goiko barran) aztertzen ditut eta agindutako lanak multzoka azaltzen zaizkit



Antzerki	Total	Liburutegia	Ikastaroa sortzen	Profila	Iritzia
Maite	33%	Entregada	0/2	1/1	Entregada
uardo	100%	Entregada	-	1/1	1/1
	100%	1/1	2/2	1/1	1/1
ide,	100%	-	-	1/1	-
ría	100%	-	-	1/1	1/1
e	100%	Entregada	2/2	1/1	1/1
agra	100%	-	-	1/1	1/1
	100%	1/1	2/2	1/1	1/1
en	100%	1/1	2/2	-	1/1
Alaitz	80%	1/1	1/2	1/1	1/1

Ikastaroan egindako lanen artean, beste era batera sortutako bat dago: profila. Horretan, zeregin batekin lotuta ez dagoen zutabe bat sortu dut (agregar nota) eta ikasleek profila eguneratu duten heinean, ontzat eman dut ariketa.



Beraz, “agregar nota” sakatzean, ebaluatzeko beste zutabe bat azalduko zaigu eta “exportar” sakatuz gero, kalkulo orri batean izango ditugu ikasleen ebaluazio datuak.


Jarduera baten izenburuaren gainean sakatzen badugu, jarduera horren ezaugarriak azalduko zaizkigu, estatistikak eta “ver”. Azkeneko botoi horretan jardueraren nondik norakoak lasaiago aztertuko ditut.




zialak	
guerre bere	Entregada
o Aldas oro	Entregada
onso	1/1
harbide Amaiaoiharbide	
ndueza	
iztegi	Entregada
tolondrau	
otegi	1/1
asurto	1/1
engoetxea	1/1
oray	1/1
ibehide Oskintza	1/1

Hemendik zeregin baten jarraipena egingo dugu: orain arteko notak, eman dizkiguten lanak eta zuzendu gabe ditugunak, egin gabekoak... Ikasle baten izenaren gainean sakatzean, ariketa horretan egindako lana ikusiko dugu; puntuatzeko, erantzuteko edo artxiboak bidaltzeko karratuak aterako zaizkigu.




Total por Defecto: Establecer PARA: 12 May, 2012

 **Sagra Atolondrau**
Entregadas May 15, 2012 7:18 AM / **Calificar**

Asignación **Borrar**
Denok lanean!



Comentarios

Adjuntar:  Archi  Vínculo  Biblioteca

Agregar Comentario

Galdetegi bat sortu badugu, iruzkinak galdera guztietan egin ditzakegu. Ikasleen erantzunen azpitik ongi edo gaizki jartzeko botoiak daude. Denbora muga jarri badugu, “borrar” sakatzean, ikasleei berriro egiteko aukera emango diegu.

Needs Grading | 1 no evaluado **Borrar**

1 **2** Question Total: 1 punto

Hurrengo egunetan ikastarotxo bat sortuko dugu (binaka). Norekin lan egin nahiko zenuke?

No Evaluado

Correcta **Incorrecta** Partial Credit /1

Comentarios:

Los participantes de la prueba solo podrán ver los comentarios si tienen acceso a ver sus resultados.

Zerrenda nagusian, jarduera guztiak azaltzen den horretan, edozein notaren gainean kurtsorea jartzen badugu, nota hori alda dezakegu.



Notak emateaz gain, dominak ere bana ditzakegu lan bat amaitzeagatik, lehenengoak izateagatik, lan txukuna egiteagatik, motibatzeagatik...




Gure dominak sor ditzakegu, irudi bati lotuko diogu domina horren izena eta azalpena, gure ikasleek zer egin duten domina hori lortzeko.

A screenshot of the "My Student Badges" interface. On the left, there is a sidebar with "Mis Medallas Para Alumnos", "Nueva Medalla", and "hechas por Edmodo". A tip box says: "Pista: Para dar medallas, visita el perfil del alumno o la página de miembros de un grupo." The main area is titled "Crear Nueva Medalla" and contains a form with fields for "Nombre de la Medalla:", "descripción (máximo 140 caracteres)", and "Imagen (114x114 píxeles):". There is a "Subir" button for the image and a checked checkbox for "Compartir Medalla con Otros Profesores". A "Crear Medalla" button is at the bottom.

Miembros >>> Administrar >> ikasle baten fitxaren gainean sakatzean, ikasle horren datuak azalduko zaizkigu. Bide hau erabiliko dugu ikasle baten pasahitza aldatzeko, adibidez.



Bestalde, ezkerreko zutabean “publicaciones recientes” atala aukeratzen badugu, eskuin aldean etiketak azalduko zaizkigu.



Partaide guztiok etiketa ditzakegu irakurtzen ditugun mezuak (jario-irakurleetan bezala) eta horren arabera, mezuak antolatuta izatea lortuko dugu. Mezu bat sailkatzen dugunean, gure zerrendara joango da, guk ez beste inork ikusiko duen horretara. Zerrenda hori besteekin partekatu nahi badugu, “administrar” atalean, gure etiketak aurkituko ditugu eta besteekin partekatzeko bidea. “Compartidas” atalean, besteek gurekin partekatu dituztenak ikusiko ditugu.